

## GIG 05

## MUTRIKUKO SEDIMENTU SINTEKTONIKOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sekzioak 50 metroko lodiera du, eta beheko unitateetako harri-koskorrez osatutako bretxa polimiktiko batez eratuta dago nagusiki. Formazio konplexu eta berezi hau Goi Albiarrean Mutriku inguruan izandako sedimentazio sintektonikoaren eraginez sortu zen, eta gero, Deba formazioko gainaldeko hareharri-turbiditek fosildu zuten.

Formazioaren barruan, angelu handiko bi etenune angeluar daude, eta haiek nahiz klasto bretxoi-deek eta egitura tektonikoez garbi adierazten dute Mutriku inguruko geruzak hego-ekialderantz okertu zirela Goi Albiarrean, eta urpeko sinklinal bat eragin zutela (Aitzetako sinklinala), Mutriku-ko failaren jarduerari erantzunez (failak ipar-mendebaldetik altxatu zituen geruzak). Geruzak altxatu ahala, ezegonkortu eta zatitan hautsi ziren; zatiak maldan behera erori ziren sinklinalaren nukleorantz, eta han, maila estratigrafiko modernoagoetan birsedimentatu ziren.

GIG hau oso garrantzitsua da mundu-mailan, eta adituak hura aztertzen ari dira oraindik ere. Oso be-zeria delako nabarmentzen da, batik bat.

## NOLA BERTARATU

Alkolea lurmuturrera iristeko, izen bereko hondartzatik itsaslabarrean zehar oinez joan behar da; hondartzara joateko, berriz, Deba eta Mutriku artean bidexka bat abiatzen da N-634 errepidetik.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ* edo itsasotik.



Buztin albiarretan bildutako bloke handia; blokeak etenuneak ditu.

**EZ DAGO KOKALEKU  
ZEHATZA EMATERIK,  
ESPOLIAZIOA GERTATZEKO  
ARRISKUA DAGOELAKO.**



Sedimentazio sintektonikoaren ondorioz sortutako bretxa polimiktiko eta desordenatua, gertutik ikusita.